



DIRU-SARRERAK

Gure enpresaren diru sarrera nagusiak sal-erostearen bitartez lortuko ditugu, alde batetik dendan salduko ditugun produktuen bitartez, bestetik Interneten salduko ditugun produktuen bitartez. Produktuen prezioa, gure hornitzaileen kostuen araberako eta denda izango ditugun gastuen araberako izango da, eta beraz prezio dinamikoak izan daitezke.

Kontuan izan behar dugu hasierako gastuentzako bazkide guztien artean kapital bat jarriko dugula, eta hasierako ibilgetuak, inbertsioa izango dira gure enpresarentzat.

Gure salmentak handitze aldera eta diru sarrera gisa, hau gutxiengo izan arren, hitzaldi eta formakuntzak emango ditugu gure dendan. Alde batetik, herritarrak kontzientziatzeko xedearekin eta bestalde, bezeroak irabazteko helburuarekin.

Gainera, egungo teknologia eta sare sozialez baliatuko gara, gure dendako produktuak ezagutzera emateko eta gure dendan egongo diren hitzaldi eta formakuntzak argitaratzeko. Hauek, ondoren gure dendako diru iturri izango direlako.

Enpresan, lau bazkideok berdinak garenez diru sarrerak berdin banatuko ditugu